

AZTERKETARIENTZAKO INFORMAZIOA

C1- GAITASUN-MAILAKO AHOZKO PROBAREN AZTERKETARIENTZAKO INFORMAZIOA

- Proba binaka egingo da (hirunaka ere egin behar izatea gerta daiteke batzuetan).
- Azterketariek **20 minutu izango dituzte** proba egiteko beharrezkoa den informazioa irakurtzeko, proposatutako materiala aztertu eta pentsatzeko (argazkiak, testuak, ilustrazioak...) eta azalpenerako laguntza gisa eskema edo gidoi labur bat prestatzeko.
- Azterketariek ariketa grabatzea nahi badute, proba hasi aurretik jakinarazi beharko diote epaimahaiari. Epaimahaiak proba osoa (bi azterketariena) grabatzeko, nahikoa izango da bi azterketarietako batek grabatu nahi izatea, beste azterketariak nahi ez badu ere.
- HEOetako pertsonalak probari ekin aurretik azterketariei kasu egingo die, informazioa eta probarako materiala emango dizkie eta denborak ezarriko ditu. Probaren fase honetan eskatu beharko dute azterketariek hari buruzko edozein argibide.
- Probak 2 atal eta alde z aurretiko aurkezpena edo sarrera izango ditu.
- **LEHEN ARIKETA** egiteko, azterketariek argazki/grafiko eta/edo testu labur bat izango duen fitxa bat jasoko dute (gehienez ere, 150-200 hitz), eta fitxa horretan probarako proposatutako gaia azalduko da. Proposatutako gaiaren aurrean erreakzionatu egin behar dute, eta beren ikuspuntua eman; gai hori zabaldu egin behar dute, informazioa erantsi, eta beste azterketariari, alegia, proban solaskide dutenari, beren iritzia eman behar diote.
Emandako fitxan, azterketariak bere azalpena egitean sartu ahal izango dituen zenbait alderdi aipatuko dira.
- Egin beharreko mintzaldiaren eskema labur bat egin ahal izango du azterketariak, eta tarteka, hura kontsultatu.
- **BIGARREN ARIKETA** egiteko, azterketariek fitxa bat jasoko dute, eta fitxa horretan ariketa proposatzeaz gain, hura jorratzeko beharrezkoa duten informazioa emango zaie. Gai hauetakoren bati buruzkoa izango da fitxa: gizarte-arazoak, komunitate-arazoak, gaurkotasuneko gaiak...

Azterketariei emandako fitxetan honako hauek ere sartu ahal izango dira: egoerei, aukerei, era askotako arazoei buruzko argudioak, datuak, ikuspuntuak eta aldeko nahiz kontrako iritzia. **Hala gertatuz gero, aipatutako argudioak eta ikuspuntuak bere eginez, argudio eta ikuspuntu horiekin bat datorren mintzaldia garatuko dute, haiek justifikatuz, arrazoituz eta zabalduz.** Nolanahi ere, azterketariek beren iritzia eman ahal izango dute, aurreko guztia egin ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialak

- Epaimahaiak ariketetako bat bukatutzat jotzea eta beste batera pasatzeak ez du esan nahi ariketaren beraren balorazio bat egingo denik; soilik ariketa hura egiteko zegoen denbora agortu dela adieraziko luke.

AURKEZPENA - SARRERA Proba hasi aurretik, bi azterketariak aurkezpen labur bat egingo dute epaimahaiaren eta beste azterketariaren aurrean.	1 min.
---	--------

1. ARIKETA: AZALPENA	DENBORA
1. azterketaria: azalpena	3-4 min
2. azterketaria: azalpena	3-4 min
Azterketariak beren azterketa-kideak egindako azalpenari edo mintzaldiari arreta jarri beharko diote. Mintzaldi hori amaitzean aztertzaile-solaskideak balorazio bat eskatuko dio, hari buruzko iritzia, hain zuzen.	

2. ARIKETA: ELKARRIZKETA	DENBORA
Azterketariak beren artean hitz egingo dute, informazioa trukatu dute eta beren iritzia emango. Arazo edo egoera baten arrazoiak zein diren azalduko dute, eta dauden aukerak alderatu eta kontrastatuko dituzte; fitxak edo beste azterketariak emandako informazioa zabaldu edo erantsiko dute, ideiei eta iritziei kontra eginez edo haiek zehaztuz.	7-8 min.
Azterketariak beren gain hartuko dituzte galdetzeko eta erantzuteko, hitza hartu eta emateko eginkizunak.	

PROBA BALORATZEA - : - 1. ariketa: 15 puntu - 2. ariketa: 15 puntu Proba gainditzeko, gutxienez, 20 puntu behar dira.
